Euskaleriko beriak

ANDOAIN'go EUSKAL EGUNETARAKO

ARPIDEA

IRU-GAREN SAILA

	Laurleko
Lendik ...	454,50
Julian Elorza	25,—
A. Iza, Otxandiano. ...	5,—
Olibenga'tar F. Zumaya	5,—
Bonito eta Eustasio Zaturain	10,—
Jose Igartua	5,—
Marcela Elizondo	2,—
Ernani'ko Ayuntamentak	50,—
Oyarzun'go Ayuntamentak	25,—
X. X. Tolosa	5,—
J. Artaza, Gorlia	50,—
Pedro Asua, apuiza, Guz toz	50,—
«Oyanguren»	5,—
«Eguzkiñe»	5,—
«Eguzkiñe»	1,—
Eusebio Elizondo	1,—
Maria Elizondo	
Jose M. Zugasti, apuiza, Tolosa	25,—
Antonio Saenz	5,—
	728,50

ARGIA'N BILDUA

	Laurleko
Lendik ...	126,—
M. Ana Sanz	5,—
Inaki Bilar	10,—
Manuel Chalbaud Izmaskin (Bilbo)	25,—
Serapio Esparza (Irula)	10,—
Ona'tar Gregorio (Ocha)	2,—
Francisco Ochoa (Upe)	2,—
Jose Mayora	25,—
Francisco Zumalakarregi (Ona)	25,—
Alfese'tar Emeterio	5,—
Gaurdaño ...	235,—
Gaurdaño ...	180,—

Gañera:
«Txaden Zaya»k, «Argi Dunisa».
Prada'tar Anjele'ek, 100 idaztiko.

GIPUZKOA

Alzarna

Igaro zaizkigu gure Zaindari ta zeruko Ama maitiaren omenez egin diogun eli jayak.

Aurreneko Ilunaurrean Zestua'ko trinitari urbeak jo zituzten euskal-eresi ariñak eta ondoren eliko eliza aurrengo gure agufa Ama Mariari zuzendu genion. Ama inmaculatan Jasokunde egunean amaitzen ibiltzenaren ondoren, meza nagusi edefa.

Egunaldiak mulabat xamafekaiz izan zen zen gazgelia ederki jolastu zan. Zestua'ko txistulari ta Amasa'ko soku pizale ospetsu aren soku eztean. Oitura zafni jarraituaz aurresculari jayo, olasko dantza, pelotan trebe ta laisterkalari azkafak ere izan dituzu.

Jai auek gure artean igarotzeta etorriako ezagun asko agurtu dituzu. Oyen artean: Gurutxaga'tar Andres jauna, Amerikatik etefia; zakel berua ez ezik esku zabala ere bazuala erakusi zigun. Gure artetik aldegiteau entzun zituan txalouk, eriaren esker ona adieraziko zioten. Berarekin etefi zan gure efiitar ta Ordizia'ko txuneskindari dan Gurutxaga'tar Jose Luis jauna.

Baita ere oso pozik ikusi degu emen Aiza'tar apaizgai azkar ta euskal idazlari Zugazti'tar Juan-Orobat Yeregi'tar Frantzisko apaiz jaunaren aireba eta ilobaAgote'tar Pedro jaunaren ilobo eta orain oroitzen etzaizkigun bes te asko. Guztiai agur bat dagie lefo auen bitartez—*Egi-zale'k.*

Albiztur

PERETXIKUAK

Eudi ederen ondore onetan, onto beix ederak ugari irten zaizkigu inguruko baserietan; eta jan ederak egiten dituzu egun oetan. Peretxiko oyetan txar asko izaten dala ta, ardura handia ibili ol legu zalantzakorik bat ere ez biltzeko edo ez jateko; eta oso on da egiten dago naski.

Peretxikaskin afaroi aundiz egiten degunu, periodikoskin euskaldun guztiok egingo bagenu: ez da txar eta zalantzakorik ez eroai eta ez irakofi... beste tankok zaunka egingo liguke gaur Euskalerian. Bai orixe.

Peretxikuak txar asko eta periodikoan geyago,
izkemn berriz—oso egokirik—
bat ere ikusten zail dago.
Oier dagoana zuzendu leike
garaso-on asko balego,
baño geienak dirim dute
egia baño maitego.

JAYOTZA

«Berri»'ko Irazusta'tar Manuel'en emazteak semexo bat izan du. Gurasoni zorionak.

ANDOAIN'GO EUSKAL EGUNETARAKO

Eman dutenak:

	Laurleko
Arakama'tar Gregorio, Efectores	5,—
Muñao'tar Martin	1,—
Lujstar	2,—
Oraindaño ...	8,—

Euskera eta oitura onak indar ta ditezen laguntzeko, txakur aundi bat bada ere, al duten guztiak eman bear luteke la derizat. Ofetarako zerbait eman nai duten guztiai poz-pozik artuko zaiote beda: eta beren iscnak ARGIA'n azalduko dira, berak nai badute beinizat.

Euskera eta oitura onak
bear ditugu indartu,
t'ofetarako-anai maiteakez, bada, ifoiz bildurtu.
Bainik bestem-beti aufera-guztiok laguntzen saiatu,
pake onean beti biziaz
aikar dezagun maitatu.

Luistar.

San José Ikastola

Haspafen

(Bayona-Biarritz bereala)

Dena berine, egokitasune, garbitasune, ikaskizun ezkefa eta berezian, izkuntzak eta zenbaterizta (Comercio). Baldintzak edo jakin nai dituzunak, zuzendu detele Alta Zuzenderia'rengana.

Altza

AMA BIRJIN EGUNA

Gure Zeruko Ama goratzafen, amaretan Meza eder bat izan zan, Perosiren bat eta Usen eizagaren «Ave Maria» polita ollertoyuen abestuaz.

JUAN ETORIYAK

Lengo larunbatean, irakaslia buru gutela, Escola-amak Igeldon izan ziran. Ayek bilduak noski «mentalia rusa»n gora beraka. (Kusberaz noia esango ote dizake mentalia rusa?). Kisares'tar Juan, Okina-Izartzako apaiza eta emengo Mujika'tar jose mari jauna ere an ziran.

—Martillun'go alaba Elizalde'tar Teodore Zumayako Karmen' dufen lekaime etxian sartu dafizkor iraun.

Aizarna'n egun on-on batzuek igarota etxeratu da Zugasti'tar jon apaizgaya. Berriz ere jonteko gogan etofi du.

—Lanziego erabat utzita, emen dabil Zugasti'tar Anike ta apaiz gasten. Aspaldiko «Lan ixuz» eritik inguruan degu emendik aufera, Tusai S. Pedro'ko mojatzuen apaiz egin dute-ta. Zorionak.

LUISTARAK

Aupa mutilak! Zumafaga'ra gustiyak Agofa'ren amabostian. neste gauza askotan aiperik gastatzen dan dirua ontan gastatu obe dezute. Euskeraz bi itzaldi izango dira: ba, lege gizon batek; bestia... langile batek... «Alza'tar batek». Zumafaga'ra, bada, berak su-ta-gar jartzera, epelak berotzera, gustiyak lujstar zintzoak gera'a argi-ta-garbi azaltzera.

Beste efiyetatik jende asko izango-da. Altza'tar Luis'ak ez atzera geldiu.

Andoain'go euskal asterako. Ara emen bildu dana:

	laurleko
Urla'tar Iñaki	2,—
Landa'tar Pablo	1,—
Maritxalar'tar Melixor ...	1,—
Altiza'tar Joseba	3,—
Altiza'tar Jose Luis	1,—
Altiza'tar Jose Mari	1,—
Altiza'tar Koldobika	5,—
Elizalde'tar Sebastian ...	2,50
Ansa'tar Mauricio	1,—
Mujika anaiak	5,—
Zugasti anaiak	5,—
Gaurdaño	27'50

Eman nai dunik jaor bada Altiza'tar Jose eta Mujika'tar Balendin engana juan ditezela.—*Itano.*

Andoain

Gure Lafamendi A. andoaindafai dagokignez ez degu, bear bezela ta gutxiago ere, ezagutzen. «Eziña egiña» sortu zuala geienok badakigu. «Iztegi» aundi bat ere antolatu izan zuala askok dakite. «Corografia» deritzan beste idazti bat, bere eskuetatik irten zala ainbestek ez dakite. ¿Eta, oietzaz gañera egin zituan lanen beri nortzuk ote dakigu? Lengo asteazkenean genduaz, Augustin deunaren eguna: egun ofetan ezin aztu Lafamendi Aita. «Etizako irakasle aundi Agustiñ San tuaren doandirza»: izen orixe du Lafamendi A'k bizi zanean egin eta esan eliz itzaldi batek. Itzaldi ori 1885'gafengo argitaratua izan zan.

1740 eta 1759'gafengo urtietan, Gipuzkoa'ko Agintari Batzafa-Donostian bilduak zan. Batzar oien asieran Lafamendi A'k egin zituan itzaldiak: oietako bat Loyola'n dago oraindik, iñork ikusi nai izan ezkero. Len aitatu deten itzaldia, esan dedan urtian argitara emen zan. Beste au oraindik, badirudi iñork ez duala aintzat artu. Bai erderaz, ta bai euskeraz argitaratu bear litzake, bada, ain bikaña ta erakutsi ederrez betia bait-da.

Eunskin Erotari, Ordizia'ko idazle bizkofiak, Gipuzkoa guztia poztu zula esaten zigun aspaldiko batean ARGIA'tik, Lafamendi A'ren omenez jaiak izango zituzte-ta otsa zabaldu zanean. Baliteke ori ofela izatia, ta ofela balitz gipuzkoar guztiok eskutu bear genioke geron Aldundiari, Lafamendi A'ren itzaldi ori argitaratu dezala, guzti-guztiontzat onura aundikoa izango litzake ta.

* * *

Azkenko ARGIA'n, edo neronek alaxe idatzita, edo langileak uts egin dutelako, gauzatxo bat ez da zuzen agertu. «Eta geiena irabazteko asmoa dunak, usteko du ogei laurleko garbi ateratzea» dakar ARGIA'k, eta esan nai nuana auxe zan: ogei ogerleko garbi ateratzea usteko du oneabestez ulertuko dezutela uste det.

* * *

Arpidearen bigafen saleko izenak eta eman dutena ikusi det. Baña andoaindafak ez dira bertan ikusten diran guztiak, ez eta Andoain'en bizi diranak ere. Andoaindafaj dagokigu geien bat sail ori gizentzea eta txanpoa asko-asko biltzea. Auzo eritan asi dira lan egiten; guztiai oainguz eskerona agertzen asi bear degu, eta, nere aldez emendikxek eskerik susuenak damazkitzuet. Baño andoaindar bakar bat bizi diran efi guztietatik zerbait agertu bear litzake: Tolosa ederki asi da; Lezo ere bai. Baiu, besse efi askotan ere badira andoaindarak, sala ta alegindu zaitezte bada guzioli, bizi zefaten tokietan zerbait biltzen.

Irundafak, Andoain'go semen dezute zeron efetoren. Pasai Antxo'n ere ar dezute andoaindar jatofa. Alegi'n ere bai, Donostia'n zer esanik ez; Zestua'n; Ormaintegi'n. Bergara'n, Zumafaga'n eta beste ainbeste tokitan dira andoaindafak non nai zabaldu ta. ¡Polita izango litzake efi oietatik ezer ez bidaltzea.

* * *

Apuizkaink, Satufaran'en ilabeti bi egin ondoren etofi dira: guztiak mutil ederak: Yarza'tar Anbrosio; Aluna'tar Faixi; Ezenal'dar Joxe; Gil'tar Frantzixku ta Giazabal'tar Luis. Ongi etofi guztioi.

* * *

Azkenko ARGIA'n idatzi nuanez, gure aunofak mindunk izango ote diran bildur-bildufez nago. Ez nuan bada ikusia besterik ezerixo ere ipifi. Gaur orden, ordean eman asi izan nien miña eta saminta sauna nolarebat arintu nai nieke bilabonatar maneni. Aufeko asteko ostiralean, iparen 23'an zarigiola batera joan beara izan nuan. Berriro nagusi jaunarekin ize egiteko gogoz nebilen, eta bera zegon lizarreño eraman minduten. An zeukan ara, bera aritzen zan jokuan ola guztian beri ziran gauzak pilaren txukun-jusun jarita: itzeek; safala txikink; giltzak, eta abar eta abar.

Ezaña nik benere ikusi ez nuan gauza bat ikustea gertatu zitzaidan: Bilabona'ko Portu aunink egindako «Ingi latza». Ona zer nolako ezangaria zerman:

Azkolari
Ingi Latza.
P. H. C.
Villabona-Cizurquil).

Tarteka-tarteka alaskolari baten antza zeraman ingi arek. Ofe laxo gauzarik orain arte ikusi gabe negon, eta aritu baño geingo, portu egin nintzan. Euskaleriko lanteqi guztiak beren gauzak ofela apaindako baliituzte besterik izango litzake. Batzuek egiten dute, egia da; baño egiten ez dutenak, askoz ta askoz, geingo dira.

* * *

Amar duroko sari eder, liknfia eman du Sarburu jaunak, amabost urtez beerako batek ego kien egindako eskutitza saritzeko. Asmo txalogafin da ori, eta gogo epelak bizkortzeko eraginkada aundia. Beste sariik izango ez balitz ere, orixe irabazteren emen bildu bear luteke gipuzkoar gazte geienak. Ots dagizutego bada, naiz nexka naiz mutil, etofi guztiok anuntza, ia nor irtetzen dan txapeldun.

Sari ori utzi duan jaunari eskefik beroenak, eta beste aberatsai dei bat. Sarigafi diran euskalgai asko dira: pelotaketa; dantzaketa; abestia; kontuak ate ratzia; edestia (orain gipuzkoar edestia bearko litzake); luteleztia, eta abar. Gai ojetakoren batian geien danari sari polit bat emateko txanpon batzuek utziko dituanik ez ote da bada sortuko? Nik baietz uste.—*Utza.*

Aretxabaleta

EFIKO JAYAK

Pakerik aundienian igaro ditugu efi onetako zaindari Miren Jasokunde jayak. Espatadantzaoiak, eta gogotik txalotuake izan onak, eta gogotik txalotuak izan dira geure dantzari bikañok.

EUZKO LANGILIAK

Emen orain ile bi inguru jafi dute bazkun begiko au, eta jayo befia izan afen ederki lan egiten du. Emengo bost ola (fabrika)'ri zuzendu dotzie idazki-bana gaur legiak aginzen daben bano ordu geixau egiten dabela ta eskatzen zortzi ordu jartzeko. «Berua» eta Lezamak jafi diure ta kaietiko beste olak ere egun onen baten jariko dutela dino.

Aretxabaletako langilijak pozagogoz guztiok «Euzko Langilien» lan ederagatik eta argi iku si degu langilien eskubidiak lortzeko ez dagola Soziafista eta Elisa'ren arerixua (enemigo) izan biafik, badagola euskal efixan bazkun bat, langilien eta efixaren aldeko lan guztiak, arduratsuago, obeto, eta zintzoago eruten dabena.

—Gaur 200 bazkide inguru ditu alkarrasun onek eta ondino beste 200 langile baño geixau di ra geure efi maite onetan ta alegindu gaitzak guztiok ondino onzkideau barik lagozanak geure gantzen, erakutziris erixa, benoian, ta geure gauza guztiak, maitasuna dotzanak zaintzea duela onduen.

EUSKEL EGUNA ANDOAIN'EN

Aurten Iraila'ren 22'an len Afasale'n, igaz Zumafaga'n, eta aurtengon asmoz anuntugua ta maminzuagua izango da, eta ortarako diru asko bear igaten da eta Afasateri lagundu gozan eran, eta egun artan geure lepatadantzari ospatzunkin juan bear degu Andoain'era.

Andoain'go Euskel egunari la guntzako arpidia zabalik dago eta atzera begira egon barik emon Azmar'tar Gotzon'eri eta nork zer emoten daben AKGIA'n jafiko ditugu.

AGURTU DITUGU

Madril al'detik etofita Afue'tar Joseba Aba eta Arantzazutik bere anai Yon Joseba Aba Erenteri'tik emengo Ola nagusiakin aitatzera orduen gañian etofi ta Lasa'tar Igo Eusko-Langile Batzako lendakaria.—*Basotxo Azpi.*

ARUA

IRAETA ALDIAN

Jesusen Biotzari. Iraetako balarak, urtero egiten dion eskeintza igandian izan zan. Aufez Loyola'ko Egaña Aita etori zan; aitormenak entzun ta itzaldiyak egitera; prozesiyo edefakin bukatu zan. Zorionak on Doroteo jaunari aiñ elizkizun eder ta poli ta eratu zuelako!

LAU AURTXO GEIAGO

Afakala-goiko Ifaxio'k ilobutxo bat izan du.

—Lar-etxe-zafeko Joxe Manuel ek beste bat.

—Sansineneako Ipafagife'tar Juan'ek beste bat.

—Lar-etxe-befiko Joxe Mari'k seme bat.

Lau aurtxo oyek aste onetan ba tayatuak dira.

Zorion biziak lau sendini!

AUTOMOBIL OYEK

Izan ere ainbeste dabiltz, nun ez da afitzekoa. Oliden aldeko al dupan bire zabalan dijuan burni bireko burnizko atia jo, ta biyur tua utzi zuan, azkafegi zijuan batek. Endreamakila alakua! Utikan olakuak!—*Zielar.*

Azkoitia

EFIKO JAYAK

Aurtengo Andra Mari egunak ere igaro zaizkigu eguraldi edefak, eta zer ikusian paltarik ez da izan: pelotari, laisterkari, abel gofien sariak, aufeskulari, neska-mutil dantzarien sariketa eta aber, bañan gaur gai onen gafean idaztera noia ez natofen, barkatu.

¡EUP!

Irakurle, zuk esango dezu zure artean ¿zer esan nai du ¡EUP! onek?

Badakizu orain artean nola Mutriku, Afasate eta igafko urtean, beiere astuko ez zaigun eguna nola egin zuten Zumafaga'n? Ba da ura baño ere edefagoa, aundiagoa egin nai litzake auxen Andoain'en datofen ilaren 15, 21 eta 22 gafenaz. (Jakingo dezu zerbait egin bear danean diruaren bear dala.) ¡Zorioneko diru! Au gabe ez dago ezer egiterik eta zu ri irakurle euskaldun esku-zabal ofi eskaritxo auxe egiten dizut.

Zuk dezun «borondate» on ori emen azalduko da zure izenakin batean, eta ekafi, guzia artuko zaizu ta.—*Iraurgi.*

Efenderi

TXISTULARIAK

Bilbo'ko batzaldian exapeldun irten zirala ta ura afera egin zitzaien. Ikuzgaria. Ango txalo ta gorak.

Irtixi ta 2 edo 3 eresi entzun era zi zizkiguten. Ederki. ¿Baña on doren zer dala ta eresbatzak jo dantza leturako? ¿Txistuaren gar bitasuna bitzako?

Aspaldian gure apaiz eta garbi zale geranok dantza zikin ofen aurka ari ez gera ba. Satatu agintariak nai on au beteetzen.

ANDOAIN'GO EUSKOL JAIETARAKO

Su ta gar gabiltz, ez dedila au itzali.

	Laurleko
Lizaso'tar Felipe	5,—
Etxebefia'tar Iñaki... ...	5,—
Garmendia'tar Damaso.	15,—
Efandonea'tar Joseba ...	2,—
Galafaga'tar Manuel ...	2,50
Kortabefia'tar Iñaki ...	2,—
Garmendia'tar Kepa ...	10,—
Aseginolaza'tar Gilermo	0,50
Arozena'tar Fermin ...	2,—
Garmendia'tar Joseba Mirena	5,—
Gaurdaño ...	49,—

Aufera.—*Itufalde.*

EREGE OSTATU ZARA
(Gran Hotel Central)
JATETXEA
Mayor kalea 3
(Bulebar'eko aldamenean)
DONOSTIA

Ernani

Ama Miren Neskutzaren igoerako eguna gogogafia izan da ori onentzat, Aita Gastaminiza uri ontako semink jaupa befiya zalako.

Aita Gastaminiza'k, Deun Iñaki'k sortu zun saila aukeratu du bere bizitzarako, au da, Josu Lagundia, Aita Kardaberaz'ek aukeratu zuna bera. ¡Goiko Jaunak Aita Kardaberaz'en ordezkari bia iko zigun!

Gure zorion agufa berari ta urtzai ona izateko ainbat gogo ta argitasun opa diogu.

—Jauregi baserriko amona bere 88 urtekin il zan, Ikurton Deunak artuta.

—«Pangofi» basefian bizi zan Sebastian Lizaribar'ek bere burua urkatu du. Befogei ta emazortzi urte omen zitun. Asmo tamalgafia artu zun gizajoak.

—Datofen ilian Aita Lafamendi zanaren izenian Andoain'go uriak jai batzuk antolatzia oldoz tu omen du, ta bertan izango da euskal-eguna ere. Ango gora berak ordaintzeko, euskaldunen laguntza nai da, naiz da pixka izan.

Ofi batzuk zabaldu ditut, ta ezer emateko gogua dunak badaki.—*Aitz-Zofotz.*

Dr. ARRIETA
Sudur, eztafi ta bularietako sendagilea.
EUSKERAZ ITZ EGITEN DA
Prim kalea, 19, 4.°
Ufufizkiña 10644
DONOSTIA

Ezkio

Aspaldi onetan ez det ARGIA maite onetan idatzi, ez gogorik izan ez dalako baño, nere egindafak ofenbeste jotsun negute. Onuzkero aunika aldiz esan zenduten il ote nintzen, bañan ez, oraindik ere bizi naiz eta azketsi oraun arte ez naiduz.

—Gure auzo-efi Ixaxo'n ere pestak izan dituzte: ez notanaiusnk ere, pesta edefak eta garbiak. Bartolo egunean gosean Meza nagusi edefa. Itzaldia Alegi'ko apaiz jaun gazte eta jatofak egin zuan, Bartolo, Deuna'ren bizitza ederki azaldutz. Meza nagusi ondoren dantzagoka atera zuten, eta afaisaldean dantza eta dantza.

Zeori ere etziñan etxean egongo...! ¿Ez da ala? Astero idatzi Mañaxi, astero.—

—Andoain'go Euskal-astea, ere, gerturatzen ari da. Andua'ko apaizak saitxo politak egiten ditu umeai erakusten. Ia aurten ere ostrobeltxa ekartzen dezuten. Poztuko nintzake ori ofela gertatu ezkero.—*Mañaxi.*

Irun

¡Konta, irazki-ezetari jauna!

EGUNETARA
Aufeko asteko idazkitxotik eresi dutxu bat jan didazute.—«marka zafen aldiz—eta ¿nola, gero, adi eraz-gaya irakurleak ulertu?

«Gurdiyak jatofen» zitzaizkigu ia Euskal-Jayan niotzan, eta trikitix soñu ta berezko zapart eta ikutiyak, nabarmenen.

—Larunbat ontan asiko degu gure eliz-nagusiyan Junkal'eko Andra Maria'ri urteoro egin oi diyogun bederatziuren ospetsua. Azkenko egunean Aita Mier jesuita gazteak egingo du itzaldi bereziya.

—Landeretxean judutar andere bat bjurtu da, aufeko egun batean, gure Erligiyo Santura. Elisa Erook du izena, eta olandatafa da bera. Efetore jaunak emen ziozkan Batayo ta Eukaristiko Sakramentu Santuak.—*Kretafa.*

Lasarte

ANDOAIN'GO EUSKAL JAIAK

Emen ere asi dira jai eder oietarako dirua biltzen. Orain arte eman dutenak auek dira:

Arozena'tar Antonio	2,50
Egizabal'tar Florenzio ...	2,50
Arozena'tar Eleuterio	5,—
Ufeta'tar Mikel	50,—
X. X.	50,—
Etxaniz aizpak	5,—
Galardi'tar Federiko	2,50
Zefajeria'tar Juana	1,—
Telexnea'tar Primitibo ...	2,50
Abaunz'tar Anonio	5,—
Unanue'tar Jon	2,—
Yartza'tar Ramon	5,—
Azurza'tar Miloel	5,—
Izaga'tar Felix	5,—
Barbe'tar Josepa	5,—
Zumzabar'tar Mikel	3,—
Bafita'tar Joseba	5,—
Merzero eta Lagunak	5,—
San Jose'tar Jose Mari ...	3,—
Guztira	164,—

Jai eder oien eragileak diru asko bear izaten dute bada sari on eta ugariak ematen dizizate batez ere umeai.

Badakit oraindik asko dirala dirua emango dutenak eta zeni eman bear zaion ez badakite ere jakin dezafela au irakufi ondoren. Arozena'tar Antonio euskaltzale jatofa da lan onetarako aukeratu dutena.

Euskaltzaleak. Bakoitzak al de zuten neurfin lagundu euskeraren onerako.—*Saldatxur.*

ETENA
sendatzeko
Euskaia (brageroa)
GORPUTZA LIRAINTZEKO
GOMAZKO GEFIKOA
TITIORDEKO TA BERE MUTUFEKOAK
"LA HERMANA"
ALGODOI, MIES-ME (Gasa)
TA XAPIAK
"CARACOL"
markadun gomazko gauzak, naizitxasbustialditerako, naiz jantziizeko, bei lantegitarako ta aber ere.
Ziritz, pelota ta jostalluak.
Sociedad General de Higiene
Urbieta, 9
DONOSTIA
Gazia besta bezia ezerie saltzen da.
BAÑU ta ondartzarako jantziak
New England
Lanerako
jantzi-urdiñak
Mekaniko-jantziak
DOZENTE ALMEIDA ta LAGUNAK
Afendagi kalea, 12
DONOSTIA

Lezo

ANDOAIN'GO JAIETARAKO

	Laurleko
Lenago bildusk: Sei idazti ta	5,—
Orain:	
Broste-Befondo'tar Anastasio'k.	5,—
Salabefia'tar Zenon'ek	1,50
Pikabea'tar Joxe'k	1,—
Gaztelumendi'tar J. Joxe'k	2,—
Afobi zareko uso batek	2,—
Pagola'tar Bonifasio'k ...	5,—
Garmendia'tar Jose Luis'ek	5,—
Garbizu'tar Kandido'k.	2,50
Garbizu'tar Tomas, Tege'k	2,50
On Dabid Esnal apaizak 15 liburu.	

(Jafaitzen du.)—*Juanito.*

NASKETAK

Jgaro zan igandean, lenengo ezkon-deia izan zuan Salabefia'tar Maria'k. Zorionak.

—Sein'tar Sebastian'en emazteak neska bat izan du. Zorionak oni ere.

—Erbestear asko, ikusten degu udara aldi ontan Guruz Dojtsuari ikerpena edo bixita egitea etofita. Jaiera, batzuek geigo bestek gutxingo... bai afayotan poltsa ere, batzuek erigo ta bestek gutxiago izango dute; danak ezirra berdin etorizen beinzat, batzuak berebiletan, patxaran etofi nai dutenak beriz, zaldi-gurdian, eta noia ienbizikoan ala bigafengoan ezin etofi dutenak... tapaitapain ohez. Alde batera edo bestera, guk, ondo etortzia opa diogu danoi.

—Gure basefitar gizajoak lanak dituzte oraintxe. Gure Jaun emale ofek ofenbeste emaitz edo fruta eman eta oni ezin zaituik. Bein ere ondo ezagutuko eztan kasta gaxto ori, or dijualiyote lasterka sagar japufeta, eta ez zaiote uste berena ez baño dala sagar ori. Lufak ematen duana dek eta, eman berarekin, zati-zati egin arte, eta ia onela ufuntzen diran.

—Gogor ekin diogu guk ere, efi onian Andoain'go Aur euskaldunen egunerako, txindia biltzen. Or goien ikusi nere lagun Juanito'k ipintzen duan efezkada ori, eta ia zurea noiz ikusten degun, irakurle.—*Anastaxio.*

Mutriku

NASTU TA LABUR

Gazteia era jaun da Portu'tar Anores apaizgaia.

—Legrono aldetik etofi dira Menoyzabal'tar Zelestino ta bere semeak.

—Azkoiti'tik ango jaiak igaro ta eldu dira berek tkoiora dutain'tar Pilar ta karmen besiatia lirañak.

Ongi etofi ta piluri bai goxua, eskerik asko ta ¿noiz juan bear defiz?

ZELAIA'REN OLAKO NESKAK BEGOÑA'N

Igandean egondu ziran Begoña'n ogeitabost neska Zelaia'ren Olakuak. Oso ondo igaro ei zuten eguna iluntzean guztiak ondo etxeratu ziran.

ARANTZALE BERI I...

Juan dan larunbat afasaldean izugarizko «durdua» afapatu zuan «Aberi»'k afoketan; bi ordoko ez posiziua egondu zan Manuela txanbeleneko tabernan; baña bai aguro igafi Joxe Manuel'ek bazangakin jdako afaia zala.

Ezpostziuaren ondoren kaleun bafena ikusi genduan «Aberi» bere «durdua» eskutian zuela.

Afotxo, afotxo; guk bezela ara zifiak ere ikusi zuten ta oso beldurtu ziran, bada ez dutela salduko aragurik eta «Aberi»'ri eteguta zioten eskutatzeko afaj ura, baita ala egin ere artu alxufa tzart zuluan; ta batzar gabeko entiefua ere bai «Aberi».

ERESALDI EDERA..

«Hotel»'tafak bem...t musika edefa entzuten due gaubero. Joxe Ofoko'k balkoian jartzen du «fonografua» ta eresaldi edefak entzuzen dituzie. Oso guztora egoten da notintza, neroni ere ne jeotik bein egondu naiz baña bai guztora.

Aspaldian ixilik dago. ¿Eziñ ote litzake jo Joxe amarterdiak arte? Nio pozik entzutzen egonduko nitzake.

SATURARAN'TAFAK ETXERA

Aste onetan bukatuko dituzie beren eginbeafak Saturarango apaiz gaiak ta poz pozik beste egonaldixo bat egitera juango dira beren etxetara. Agur datofen urte arte ondo ibili guztiok.—*Ixas-aufe.*

Oriotzak

Juan dan astelenean autobusdi bat era igotzetukoan ibili tu ta automoilaren efectorrita arkitu zuan bere eri Lizagatar Pablo 29 urteko ti gazteak. Urnitafa degu Fau eta Txikierdi inguruko lan gietan lan egiten zuan. Irakurle Gure bat eskatzen dizut Goyan bego.

Gazte on onen gogo al

Laguntzen diei asekabian bu gurasu eta Gaferonizeko seni ari.

ZAMOLARIK.

Entzun dogu juan dan ig dun ere sano eder bat egin a pia emengo tofeolarik Aptam etzuten izugan baikarik egin ta zik egal-efe eztra jaten ere ba Eta etzuen nosai jan bi egingo, zalo aundi bat najar z toz betza ere ba omenzuien d apuzta gogorak egiten iz bear zuten. Esan digutenez Eg zabal'ek Teletxeari 6 tirotan nen bat kendu zion eta gero f del'ek eta Egizabal'ek Teletxe eta Kerejeta'ri 10 tirotan sei o tzarena.

Danetan gogofena Olki'k Joxe omen zuten.

Ufena juan bear dezutenez deitu neri ere eta poz-pozik ju go naiz.

ANDOAIN'GO EUSKAL JAIAK

Lagundu zazute zuek ere eder ojek antolatzen al dunak dun neufiz dirua emanaz. Lasarte'ko Arozena'tar Antonio edo bestela Egizabal'tar Fl artzeko beti gertu daude.

MENDIGOIZALEAK

Gaur Aralar'ko Migel Deun ra jostekonk dira Egizabal'tar jon, Ofokiegi'tar Rejino eta Teletxea'tar P. Lasarte'ko Barbatar Jose'kin. Ondo ibili eta juaterako ankaidi batzuk eman kafankarik dezazuten.—*S.*

Olaztzu

Aspaldi xamar da irakurle zizo oyek emengo berri ezi dezutela; beiñ eta befiz eta berri eskutan ARGIA ari ez ...uts! Oyarzgafak; ango ba ala egiten ziran ...zer egiten dezute aspaldi idatzi gabe. Nik beintzat Oyarzango befirik ez dakafenin ...ratziyukiñ afika botzen di... sus! ¿afika befiz? Tira la ba emendik aufera ez a ofenbeste pipefik egingo ¿Ez da ala Nemxxi?

ANDOAIN'GO EUSKAL PEGETAK

dirula ta emen ere pentsatu laguntza piska bat bialtzen dik gutxi bilda degu ondoren siko dezuten bezela baño datofen asterako zerbait geyago bildutzia.

Andoaingo euskel egunerako

	laurleko
Martiarena'tar Dun... ...	2,—
Inafa'tar Eusebio	2,—
Uranga'tar Raimundo	2,—
Mitxelena'tar Frantzisko	2,—
Arbide'tar Jose Manuel ...	2,—
«Mirentxu»	2,—
Oraindaño	12,—

Jafaituko da

JAYOTZAK

Balerione, Lizafaga (Jose Mari) Yartza eta Enparan baseritan aurtxo bana izandu dute. Ilnori zorionak.

EZKONTZAK

Goroskotako Lazaro, Irauragafi baserriko neskatxokin, Julian Mujika Lizafaga'kua, Kristina Lekuonakiñ eta Lafeko semen zana, Azkue'ko neskatxarekiñ. Zorionak.

JUAN ETORIAK

Egun batzuk igarotzera etofi da Portu'tar Florenzio jauna.

Saturarandik ilabete bat igarotzera apaiz goyak eta oyen ikasliak. Ongi etofi.

Igaro dan astelenian Saturan'go ondartzan-eguna izan izen izan da organo-jotzale ... re abestari gaztiakiñ.

GAURKO MEZA NAGUSIYA izango da Juan Maria Goikoetxea jaunaren gogo aldez. Meza txistulariyak eta beste lagun artian ateatzen dute. G. B. Jauna Mari zanaren anima. Eta etorkuari Jaungoikoaganako ...mena sinismena.

ELGOIBAR'KO BATEN...

Eskafik asko «Baten...nako izan dezun zintzo... tik. Baño edefa egin ge... Zuk esaten dezu ikusi ni... la eta nik ere uste det zu i... Geltokira iritsi gifianian ikusi


Prensa ete lotzeko makina'kafen
SAGAFA ETA MATSA JOTZEKO MAKINAK
ESKUZKUAK ETA POLEAKUAK
TOLARIETAKO ARDATZAK
Eskatu saneufiak edo prezityuak.
Marrodan eta Rezola'ri
Apartado 2. — Delicias, 11
LOGROÑO

Dr. Olaizola
Guzitariko sendakintza (Cirujia general)
Rayos X, Rayos Ultravioleta eta Diatermia
ZUMAYA'n, Ufutizkiña 90, egunero 11'etatik 1'etara eta 5'etatik 6'etara.

ETENDURA edo ERNIA
Eten-ubal edo bragerak jartzen dira
CENTRO MEDICO ORTOPEDICO — Gipuzkoa plaza, 2. — DONOSTIA

Almacenes MERKIA Beko-kalea ERENDERI
Maindiriak, mantak, alkandorak. Aur eta gizon jostziak.
MERKE SALTZEN DIRA

Zuzenbidea ufutzdenak: SARASOLA. • VILLAFRANCA DE ORIA
Sarasola'tar Juan M. Semeak
Ufufizkiña: 18 (SASOINO (Gipuzkoa)
AROBI AUNDIETAKO ARBEL LANTEGIAK
Gazt-eguzkiak izan liteke, aitzal edo maldarik bat ta eguzkiaskin lo ikusiak egiten dira Arbel (pizafa) onentzakoa; trinko ta gogoa, Farfa'ko Eleta eta Laboratoriyako Medikuak bera aztertu-ta egiten dutee begia.
Ludiko efi guztietarako Edozein eratako lanak

Lanerako
jantzi-urdiñak
Mekaniko-jantziak
DOZENTE ALMEIDA ta LAGUNAK
Afendagi kalea, 12
DONOSTIA

AZIRIK ONENAK
Juan Mokoroa
Aldamar 6. — Donostia